

Hiriek hobetu egin dituzte ezindu fisikoentzako irispideak baina ez **itsu** eta gorrentzakoak

BRILLETZ IDATZITAKO INFORMAZIO GUTXI DAGO ETA ZEINUEN HIZKUNTZA ULERTUKO DUTEN INTERPRETE PROFESIONAL GUTXI DAUDE; HORIEK DIRA OZTOPO NAGUSIAK ENTZUMEN- ETA IKUSMEN-EZINTASUNAK DAUZKATENENTZAT

- Guztientzako irispide egokiekin. Halakoak izan behar lukete gure hiriek, baina beti ez dira halakoak izaten. Eta hori aski ongi dakite ezintasunen bat daukaten pertsonak (3,9 milioi dira Espainiako Estatuan). Oztopo arkitektoniko ugari desagerrarazi dira irisgarritasun unibertsala lortzeko asmoz, baina oraindik bada zer egin ugari. Halaxe egiaztatu du EROSKI CONSUMERek 18 hiritan egin berri duen azterketa batean: eraikin publikoen irispideak aztertu ditu, gurpil-aulkian doazen pertsonak eta entzumen- eta ikusmen-ezintasunak dituztenek zer egoera pairatu behar izaten duten jakiteko. EROSKI CONSUMERen teknikariak hiru eraikin publikotan izan dira otsailean, eta eurekin, gurpil-aulkian dabilen pertsona bat bisita batean, itsu bat bestean eta gor bat hurrengoan (pertsona ezinduak biltzen dituzten hainbat erakunderen laguntza eduki dute horretarako). Honako hiri hauetan ibili dira, hain zuzen: A Coruña, Alacant, Bartzelona, Bilbo, Cadiz, Donostia, Iruñea, Gasteiz, Granada, Kordoba, Madril, Malaga, Murtzia, Oviedo, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza. Bisita horiekin, zer-nolako irispideak dauden ikusi nahi izan dute, bai udal-eraikin batean, bai ospitale bateko kanpo-kontsultetan eta bai tren-geltoki batean. Horretarako, prozedura hau erabili dute: lehenik, bost minutuko ibilalditxoak egin dute eraikinerantz, eta bideko irispideei erreparatu diete; gero, eraikinerantz sartu dira, eta sarrera bera eta barreneko instalazioak aztertu dituzte, komunak barne.

Emitza orokorra ez da izan apartekoa ('onargarria' baino ez), eta azterketa gaitzetzeko ere larri ibili dira, oro har. 18 hirietatik 13k, emaitza horixe bera ateratu dute ('onargarria'), eta Kordobak, Malagak eta Valladolidek soilik lortu dute emaitza 'ona'. Gure txostenak ondorio

nabarmen bat utzi digu: hiriek ahalegin gehiago egin dute gurgil-aulkian doazen beharretara egokitzeko (18 hirien batez besteko emaitza 'ona' izan da atal horretan), baina ez dute berdin jokatu ikusmen-ezintasunak dituztenekin (emaitza 'onargarria' eskuratu dute), eta zer esanik ez entzumen-ezintasunak dituztenekin ('hala-holako' emaitza). Gurgil-aulkian doazentzako irispideak aztertu ondoren, 18 hiriek gainditu dute azterketa.

Gauzak okerrago daude itsuentzat, azterketaren emaitzak horixe islatzen du ('onargarria' izan da, batez beste). Bereziki, braillez idatzitako informazioa falta da eta soinu-elementuak, pertsona horiei orientatzen laguntzen dietenak, eskas dira. Hiri asko geratu dira gure azterketa gainditu gabe.

Eta itsuek baino are egoera okerragoa izaten dute entzumen-ezintasunak dituztenek, irispideei dagokienez. Hiri guztiak hartuta, batez besteko emaitza ez da iristen azterketa gainditzera ('hala-holako' izan da). Hiriz hiri, honako hauek gelditu dira azterketa gainditu ezinik: Valentzia, Madril, Granada, Gasteiz, Iruñea, Donostia, Bilbo eta Alacant. Gainerako hiriek emaitza hobea atera dute, eta guztietan onena, Malagak (irispide 'oso onak' dauzka gorrentzat).

**UDAL-ERAIKINAK:
GUZTIENTZAT MODUKOAK?**

Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakundeak. Eraikin publiko horiek pertsona guztientzat izan behar lukete irisgarri. Baina, egiaz, besterik gertatzen da.

Udaletxeetara sartzea, hasteko, ez da dirudien bezain erraza. Eraikineri hurbiltzeko, 5 minutuko ibilalditxoa egin dute aztertzaileek, eta ezintasun motorrak dauzkaten pertsonak zailtasunak eduki

dituzte aurrera egiteko, espaloien zabalera osoa ez delako egon oztoporik gabe (hori gertatu da A Coruñan, eta Kordoban, Murtzian eta Sevillan ere bai zenbaitetan). Hiri-altzariak eta ibilgailu gaizki aparkatuek traba egin dute A Coruñan, Alacanten, Iruñean, Kordoban eta Sevillan. Ikusmen-ezintasunak dituztenek ere hainbat oztopo aurkitu dituzte Iruñean, Gasteizen, Kordoban, Malagan, Oviedon, Sevillan eta Valladoliden, eta zoruari ere arreta berezia jarri behar izan diote A Coruñan, Bilbon, Gasteizen, Kordoban eta Sevillan, ezegonkor egon baita.

Errepidea gurutzatzea ere ez da arriskurik gabea. Oinezkoentzako igarobidea daukaten lekuetan, beti ez da egon semaforo bat, pertsona itsuek jakin dezaten handik gurutza dezaketela errepidea (hori gertatu da A Coruñan, Cadizen, Donostian, Iruñean, Malagan eta Murtzian zeharkatu ditugun igarobide guztietan). Entzumen-ezintasunak dituztenei dagokienez, berriz, oso hiri gutxitan ikusi ditugu horientzat egokituta dauden semaforoak: argia gorri jar-tzeko zenbat denbora falta den adierazten dutenak, adibidez, Bilbon, Gasteizen, Kordoban, Granadan eta Malagan soilik ikusi ditugu, eta soinu bidezko abisua ematen dutenak, Bartzelonan, Gasteizen, Sevillan, Valentzian eta Zaragozan.

Udaletxeen sarreran, Donostian soilik aurkitu dugu oztopo izan litekeen elementua: ate birakaria dago sarreran, eta arazoak sortzen ahal dizkie ezintasun motorrak dituztenei eta itsuei. Horrez gain, dena den, badago eskuz irekitzen den beste bat ere. Egokiena atea automatikoa izatea da (zortzi hiriek eduki dute), gardena edo kristal-guneekin, entzumen-ezintasunak dituztenek modua izan dezaten ikusteko zer dagoen beste aldean (A Coruñan, Madrilen eta Zaragozan ez da egon halakorik); sarbideak, gainera, kalearen maila berean egon behar luke (gurgil-aulkian joan diren pertsonekin egin ditugun ibilbideetan, ikusi dugu hirien erdiek ez daukatela kalearen maila berean udaletxerako sarbidea).

Gasteizko udaletxean izan ezik, gainerako guztietan aski leku izan da gurgil-aulkian doazen pertsonak barrutik ongi mugitu daitezten, eta itsuentzat traba izan daitekeen oztoporik ere ez da egon. Itsuei, ordea, erakutsi egin behar zaie nondik joan daitezkeen, baina udaletxe bakarrak ere ez ditu eduki lerro edo gida bide-erakusgarriak, kolore eta testura desberdinetakoak, eta ateak, paretak eta zoruak ere ez dira egon kolorez nabarmenduak, gutxi ikusten duten pertsonentzat lagungarri izateko moduan (A Coruñan, Bilbok, Cadizek, Granadak, Malagak eta Murtziak soilik bete dute baldintza hori).

Udaletxeetan, mahai bat edo gune bat izaten da jendeari harrera egiteko, eta hara joan dira gure aztertzaileak. Udalerrian erroldatzeko informazioa eskatu dute, eta komunikazioa bideratzeko

orduan, entzumen-ezintasunak dituztenek eduki dute arazo gehien. Nagusiki, udaletxeetan ez dagoelako zeinuen hizkuntza ulertzen duen interprete profesionalik: A Coruñan, Cadizen, Kordoban, Malagan eta Valladoliden soilik egon da (Granadan, langileek ez dute jakin halakorik baden edo ez). Bost hiri horiek interpretea eduki arren, A Coruñan eta Cadizen soilik erantzun dute unean bertan, bideo-dei baten bidez edo interpretea bera etorrira; gainerako hiruretan, aurrez egin behar da eskaria, edo interpretea asteko egun jakin batzuetan soilik egoten da han. Ezintasun fisikoak dituzten pertsonak ere zailtasunak eduki dituzte harrea-mahaiko langileekin komunikatzeko, zeren mahaiak garaiegiak izan baitira Alacanten, Bilbon, Cadizen, Murtzian, Oviedon, Sevillan eta Valentzian. Ikusmen-ezintasunak dituztenentzat ere ez da erraza braillez idatzitako oharra aurkitzea.

Komunak funtsezko eremuak dira eraikin guztietan, eta edozein pertsonak erabiltzeko moduan egon behar dute. Arau hori ez dute bete, ordea, A Coruñan, Gasteizen, Murtzian eta Sevillan. Besteetan, faltan sumatu ditugu irisgarritasun-seinale unibertsalak, ateak ez dira izan behar bezain zabalak gurgil-aulkian doazentzat, komunek ez dute eduki euste-barrarik, braillez idatzitako oharrik ez dugu ikusi eta pertsona gorrik ahal izateko seinalerik ere ez da egon, komunean norbait dagoen edo ez jakiteko.

OSPITALEAK: BADUTE ZER 'OSATU'

Funtsezkoa da herritar guztiek inolako arazorik gabe sartu ahal izatea ospitaleetara. Hala ere, oraindik badira oztopoak –ez nolana hikoak– guk aztertu ditugun hiru ezintasunak dituztenentzat. Oinez joanda, elementu arriskutsuak aurkitu ditugu A Coruñan, Donostian, Murtzian, Oviedon, Sevillan eta Zaragozan, zoruak ez delako izan egonkorra (koskak, galtzada hondoratua, lur zati solteak, baldosa irtenak, espaloi-koska garaiegiak), ez eta ez-labainkorra ere. Gainera, hiri-altzariak eta auto gaizki aparkatuak oztopo izan dira ezintasun motorrak dituztenentzat Donostia, Kordoba, Granada, Madril eta Malagan.

Ospitalerako bidean, behin baino gehiagotan gurutzatu behar izan dugu errepidea, eta gehienetan, semaforo bat eta/edo oinezkoentzako pasabidea egon da. Ikusmen-ezintasuna duenarentzat, ezinbestekoa da hark entzuteko moduko seinale batek ohartaraztea errepidea gurutza dezakeen edo ez, baina semaforoa egon den lekuetan, hiri hauek soilik eduki dute entzuteko seinalea: Alacant, Bilbo, Granada, Kordoba, Madril, Oviedo eta Valladolid. Entzumen-ezintasunak dituztenek, berriz, ikusteko seinaleak behar dituzte inguruan, baina 18 hirietan egokitu zaizkigun semaforotatik, Kordobakoetan soilik ikusi ditugu argia gorri jartzeko zenbat denbora falta den adierazten duten pantailak.



**GURPIL-AULKIAN DOAZENENTZAKO IRISPIDEAK,
HIRIZ HIRI**

HIRIA	Udaletxea ⁽¹⁾	Ospitalea ⁽²⁾	Tren-geltokia ⁽³⁾	Emaitza orokorra ⁽⁴⁾
A CORUÑA	Onak	Onak	Onargarriak	Ona
ALACANT	Onak	Onak	Onak	Ona
BARTZELONA	Oso onak	Onak	Oso onak	Oso ona
BILBO	Onak	Onargarriak	Onargarriak	Onargarria
CADIZ	Onargarriak	Onargarriak	Onak	Onargarria
DONOSTIA	Oso onak	Onak	Onak	Ona
GASTEIZ	Onak	Onargarriak	Onak	Ona
GRANADA	Oso onak	Onargarriak	Onak	Ona
IRUÑEA	Oso onak	Onak	Onak	Ona
KORDOBA	Oso onak	Onak	Onak	Ona
MADRIL	Oso onak	Onargarriak	Onak	Ona
MALAGA	Oso onak	Onak	Onak	Ona
MURTZIA	Onak	Oso onak	Onak	Ona
OVIEDO	Onargarriak	Onargarriak	Onak	Onargarria
SEVILLA	Onak	Onak	Onak	Ona
VALENTZIA	Oso onak	Onak	Onak	Ona
VALLADOLID	Oso onak	Onak	Onak	Ona
ZARAGOZA	Oso onak	Onak	Onargarriak	Ona
BATEZ BESTEKOA	Ona	Ona	Ona	Ona

(1) Udaletxea: 5 minutuko ibilalditxoan zoruaren egoera aztertu dugu, hiri-altzarien kokapena, eta seinaleena. Kontuan hartu dugu espaloio-koskek zer altuera eduki duten eta oinezkoentzako igarobiderik eta semafororik izan den. Eskailerak eta arrapalak errosoak izatea ere oso ontzat jo dugu. Sarreraren irispideak nolakoak diren aztertu dugu, eta eraikin barreraren gurgil-aulkiarekin mugitzeko erraztasuna zenbatekoa den eta altzairuen altuera zein den. Komunak egokituta ote dauden ere aztertu dugu (leku aski, seinaleak egokiak, euste barra...). (2) Ospitalea: kanpo-konsulten gunea bisitatu dugu, eta udaletxean aztertu ditugun alderdi berak hartu ditugu kontuan. (3) Tren-geltokia: udaletxe eta ospitalean aztertu ditugun alderdi bertsuak hartu ditugu kontuan. (4) Emaitza orokorra: aurreko hiru ataleko emaitzen batez bestekoa da.

**Alacant eta Donostiak
ez dituzte
irispide egokiak**





interprete profesionala, nahiz eta zerbitzua ez duen ematen uanean bertan. Ondorioz, idatziz eta keinuen bidez adierazi behar izan dituzte beren eskabideak, eta horrek nabarmen zaildu du administrazioko langileek eskaini ahal izan dioten arreta. Eta zenbait lekutan, hain zuzen, tratua ez da izan egokia: Bartzelonan, Donostian, Cadizen, Iruñean, Kordoban, Sevillan eta Valentzian gertatu da hori; batik bat, zaila gertatu zaie elako informazioa ematea, nahiz eta zenbait langileren jarre-
rak ere ez duen askorik lagundu: ez dute ahalegin eta interes handirik jarri horretan.

Itsuei ere zail gertatu zaie informazioa eskuratzea ospitaleetan, kartel, esku-orri eta inprimaki gehienak ez daudelako braille hizkuntzan: ez mapak, ez kokapen-planoak eta ez kontsulten informazioa.

Azkenik, ospitale gehienetako komunak irisgarritasun-seinale unibertsalarekin adierazita egon dira, eta sarrerako atea aski zabala izan da gurgil-aulkiarekin sartzeko. Barrenean, hala ere, zenbat gabezia antzeman ditugu: ikusteko seinaleak falta izan dira, komunean inor baden edo ez jakiteko, eta txorrotek ez dute eduki sistema automatiko bat eskuak azpian jarri eta ura isuraziko diena (erabilgarria da ikusmen-ezintasunak eta ezintasun fisikoak dituztenentzat).

GELTOKIAK: OZTOPO UGARIKO BIDAIA

Cure teknikariak, entzumen- eta ikusmen-ezintasunak eta ezintasun fisikoak dauzkaten pertsonak lagun hartuta, eraikinen kanpoaldean eta barrualdean zer-nolako irispideak dauden aztertzen aritu dira. Ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzako irispideetan aurkitu ditugu gabeziarik nabarmenenak eraikinen kanpoaldean: hirien erdietan ia (Alacant, Cadiz, Donostia, Gasteiz, Granada, Malaga, Oviedo eta Zaragoza) oztopoak edo elementu arriskutsuak aurkitu ditugu tren-geltokiaren inguru hurbilean: hiri-altzariak gaizki jarrita (zutabeak, zuhaitzak, kale-argiak), zorua hondatuta...

Zer egoera aurkituko dute itsu batek, gor batek edo gurgil-aulkian doan batek tren-geltokiaren barrenean? Ezintasun fisikoak duten pertsonentzat, geltoki guztietan bada laguntza-zerbitzu bat (Atendo esaten diote, eta Renfek sustatua da); gainera, eraikin barreneko banaketak ere arazorik gabe mugitzeko aukera eman die guk aztertu ditugun 18 hirietan. Nasara joateko bidean, ordea, oztopo batzuk ikusi ditugu (Donostian), eta harrera-mahaietarako bidean ere bai (Alacant, Iruñea, Kordoba, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza). Mahai horiek, gainera, garaiegiak izan dira zazpi hiritan, eta berdin gertatu da txartelak erosteko makinekin ere (A Coruña, Bilbo, Gasteiz, Granada, Murtzia, Oviedo eta Valentzia); hori oztopo handia da gurgil-aulkian doanarentzat.

IKUSMEN-EZINTASUNA DUTENENTZAKO IRISPIDEAK, HIRIZ HIRI

HIRIA	Udaletxea ⁽¹⁾	Ospitalea ⁽²⁾	Tren-geltokia ⁽³⁾	Emaitza orokorra ⁽⁴⁾
A CORUÑA	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak
ALACANT	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak
BARTZELONA	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak
BILBO	Hala-holakoak	Onak	Onak	Onargarria
CADIZ	Onak	Onargarriak	Onak	Ona
DONOSTIA	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak
GASTEIZ	Onargarriak	Onak	Onak	Ona
GRANADA	Onargarriak	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarria
IRUÑEA	Onargarriak	Onak	Hala-holakoak	Onargarria
KORDOBA	Onak	Onargarriak	Onak	Ona
MADRIL	Onargarriak	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarria
MALAGA	Onargarriak	Onak	Onargarriak	Onargarria
MURTZIA	Onak	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarria
OVIEDO	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarriak	Onargarria
SEVILLA	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak
VALENTZIA	Onargarriak	Onargarriak	Onak	Onargarria
VALLADOLID	Hala-holakoak	Onargarriak	Onak	Onargarria
ZARAGOZA	Onargarriak	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarria
BATEZ BESTEKOAK	Onargarria	Onargarria	Onargarria	Onargarria

(1) Udaletxea: 5 minutuko ibilalditan, zoruaren egoera aztertu dugu, eta zoru mota bat baino gehiago egon den edo ez. Hiri-altzariak arriskurik eragiten duten edo ez ikusi dugu, oinezkoentzako igarobideak egoera onean egon diren, eta soinu bidezko seinalea ematen duten semafororik duten. Eskailera, arrapala eta igogailuak itsuentzat egokituak dauden ere aztertu dugu. Sarreran, hiri-altzariak nola kokatuak dauden, zorua zer egoeratan egon den, informazioa braillez idatzia edo erliebean emana egon den, eraikinek eduki dituzten edo ez soinu bidezko seinaleak ematen dituzten sistemak, eta eskailera, arrapalak eta igogailuak itsuentzat egokituak egon diren. Komunak egokituak dauzkaten ere ikusi dugu. (2) Ospitalea: kanpo-kontsulten gunea bisitatu dugu, eta udaletxean aztertu ditugun alderdi berak hartu ditugu kontuan. (3) Tren-geltokia: udaletxean eta ospitalean aztertu ditugun alderdi bertsuak hartu ditugu kontuan. (4) Emaitza orokorra: aurreko hiru ataletako emaitzen batez bestekoa.

Ospitalera sartzeko atea Bilbon eta Valladoliden soilik izan da birakaria, nahiz eta bi horietan egon diren eskuz irekitzeko atea ere. Entzumen-arazoak dituzten pertsonen gauzak errazteko, atea gardenak edo kristal-gunez hornituak izan dira aztertu ditugun ospitale guztietan. Ezintasun motorrak dituzten pertsonekin egin dugun ibilbidean, ohartu gara sarbidea ez dela egon kalearen maila berean 18 hirietatik 13tan; horietako 10etan, gainera, eskailera egon dira, nahiz eta arrapala ez-mekanikoak eta igogailuek ere eduki dituzten.

Barruan, bisitatu ditugun kanpo-kontsulta guztiek banaketa egokia eduki dute, ezintasun fisikoak dituztenak ongi mugitzeko modukoak; Gasteizen soilik antzeman ditugu mugikortasuna oztopatu duten elementuak. Era berean, ikusmen-ezintasunak dituztenei bidea erakusteko lerroak edo gidak, kolore eta testura desberdinetakoak, Bilbon eta Donostian soilik ikusi ditugu. Gainera, Gasteizen eta Sevillan baino ez ditugu aurkitu oztopoak eraikinen barrenean, ikusmen-arazoak dituztenen trabagarri izan daitezkeenak, nahiz eta zorua egonkorra izan den leku guztietan.

Informazioa eskatzeko, harrera-mahaira joan dira gurgil-aulkian dabiltzanak, baina Bilbon, Granadan eta Oviedon, esaterako, bat bera ere ez da egon altuera egokian. Ospitaleetan ere entzumen-ezintasuna daukatenei izan dute arazo gehien langileekin komunikatzeko, Malagan soilik eduki dute eta zeinuen hizkuntza ulertzen duen



ENTZUMEN-EZINTASUNA DUTENENTZAKO IRISPIDEAK, HIRIZ HIRI

HIRIA	Udaletxea ⁽¹⁾	Ospitalea ⁽²⁾	Tren-geltokia ⁽³⁾	Emaitza orokorra ⁽⁴⁾
A CORUÑA	Onargarriak	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarria
ALACANT	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak
BARTZELONA	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarriak	Onargarria
BILBO	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak
CADIZ	Onargarriak	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarria
DONOSTIA	Onargarriak	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak
GASTEIZ	Onargarriak	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Hala-holakoak
GRANADA	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak	Hala-holakoak
IRUÑEA	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak
KORDOBA	Onak	Onargarriak	Oso onak	Ona
MADRIL	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak
MALAGA	Oso onak	Oso onak	Oso onak	Muy Ona
MURTZIA	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarriak	Onargarria
OVIEDO	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarriak	Onargarria
SEVILLA	Hala-holakoak	Onargarriak	Onargarriak	Onargarria
VALENTZIA	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarriak	Hala-holakoak
VALLADOLID	Onak	Onargarriak	Onak	Ona
ZARAGOZA	Onak	Onargarriak	Onargarriak	Onargarria
BATEZ BESTEKOAK	Hala-holakoak	Hala-holakoak	Onargarria	Hala-holakoak

(1) Udaletxea: 5 minutuko ibilalditan, zoruaren egoera aztertu dugu, seinalerik egon den edo ez, oinezkoentzako igarobiderik izan den eta komunak egituak ote ziren... Eraikinen bertan, seinalerik egon den aztertu dugu, txanda hartzeko makina elektronikoa eduki duten, informazioa ikusteko moduko gailuen bidez eman duten, atea, igogailuak eta komunak nolakoak diren, zeinuen hizkuntza ulertuko duen interprete profesionalik baden, eta, DTsrik edo testu-telefonorik, faxik eta begizta magnetikorik eduki duten. (2) Ospitalea: kanpo-kontsulten gunean udaletxean aztertu ditugun alderdi berak aztertu ditugu. (3) Tren-geltokia: udaletxean eta ospitalean aztertu ditugun alderdi bertsuak hartu ditugu kontuan. (4) Emaitza orokorra: aurreko hiru ataletako emaitzen batez bestekoa.

Hirien alderdirik onenak eta txarrenak

Itsuei dagokienez, geltoki ia gehienek ez daukate entzuteko seinalerik, ez informazioa emateko ezta kokapena zehazteko ere. Ateak, hormak eta zoruak ere ez daude margotutako kolore nabarmenekin, gutxi ikusten duen norbaitek bereizteko modua izan dezan. Alacanteko, Iruñeko eta Valentziako nasetan, ez dago segurtasun-marrarik zorua- ren gainean, ezta Valladolideko batzuetan ere. Gainera, bisitatu ditugun tren-geltokien erdietan baino gehiagotan, txartelak saltzeko makinek ez dituzte eduki argibideak braillez edo erliebean emanak (A Coruña, Alacant, Bartzelona, Iruñea, Kordoba, Malaga, Murtzia, Oviedo, Valladolid eta Zaragoza). Dena den, geltokiko langileek tratua egokia eman diete ikusmen-arazoak dituztenei, salbu eta hiri hauetan: Donostia, Madril, Zaragoza eta Alacant. Leku horietan, ezinduekin zegoen teknikariari hitz egin dio langileak, ezin- duari berari hitz egin beharrean (nahiz eta hura joan zaien informazio eske).

Entzumen-ezintasunak dauzkatenentzat ikusteko seinaleen falta da arazorik handiena, larrialdiren bat gertatu dela ohartarazteko erabiltzen direnak, adibidez (A Coruñan, Bilbon, Malagan, Murtzian, Sevillan eta Valentzian soilik ikusi ditugu hala- lakoak). Hori gabezia handia bada ere, bada komu- nikatzeko orduan pertsona horiei eragozpen are handiagoa eragiten dien beste bat: zeinuen hizkuntza ulertuko duten interprete profesiona- len falta. Honako hiri hauetako geltokietan soilik eskaini dute zerbitzu hori: Bartzelona, Madril, Valladolid, Kordoba, Oviedo, Iruñea eta Malaga. Entzumen-arazodun pertsona langileengana gal- dezka joan denean, ongi hartu dute geltokien er- dietan baino gehiagotan, baina ez hala Donostian, Zaragozaan eta Cadizen, non tratua txarra edo oso txarra izan baita.

Bisita amaitzeko, geltokiko komunek zer-nolako irispideak dituzten aztertu dugu. Oro har, ezindu fisikoei dagokienez, gabezia gutxi antzeman ditu- gu. Geltoki guztietan, irisgarritasun-seinale uni- bertsalak ageri dira komunetan. Sarbidea aski zabala eduki dute, gurpil-aulkiarekin lasai sartzeko modukoa. Ordea, A Coruñan, Bilbon eta Zaragozaan aztertu ditugun komunek ez dute eduki aski leku barreneko aldean. Gainera, A Coruñako komunari euste-barra falta izan zaio ondoan.

Komunetako atea kolore deigarritz margotu edo braille bidez ongi seinalatu ezean, itsu batek edo gutxi ikusten duen pertsona batek nekez aurkituko du, eta horixe gertatu da, hain zuzen, hiri hauetako komunetan: A Coruña, Bartzelona, Iruñea, Kordoba, Madril, Malaga, Murtzia, Oviedo, Sevilla, Valladolid eta Zaragoza. Horrez gain, hiru geltokik soilik eduki dituzte ikusteko seinaleak, komunetan inor baden edo ez jakiteko (Kordoba, Murtzia eta Sevilla); sistema hori beharrezko izan- da pertsona gorrentzat.

GEHIAGO JAKITEKO
www.consumer.es



A CORUÑA: 'onargarria'

- + Ezintasun fisikoa duten pertsonentzako irispideak (emaitza 'ona' lortu du atal horretan): udaletxeko har- rera-mahaiak altuera egokian egon dira, ospitaleko ko- munak egokituak, eta geltokian, aparkalekuak bereizi egiten dituzte ezintasun motorrak dituztenentzat.
- Itsuentzako irispideak (ez du gainditu azterketa): tren- geltokiaren barrenean ez dago soinu-seinalerik infor- mazioa emateko edo/eta kokapena zehazteko; ospitale- ko igogailuaren botoiak ez dira egon braille hizkuntzan edo erliebean; eta udaletxeko zorua labainkor egon da zerbait tokitan.



ALACANT: 'hala-holakoa'

- + Gurpil-aulkian doazenentzako irispideak: ez da egon arrapala mekanikoki tren-geltokira eta ospitalera sartzeko, eta udaletxeko komun guztiak ez dira egon egokituak.
- Gorrentzat eta itsuentzat egindako egokitzapenak ('hala- holako' emaitza): hiru eraikinetako batek ere ez ditu eduki gida edo lerro bide-erakusgarriak ikusmen- arazoak dituztenentzat, ezta larrialdien berri ema- teko ikusmen-seinaleak ere entzumen-ezintasunak dituztenentzat.



BARTZELONA: 'onargarria'

- + Gurpil-aulkian doazen pertsonentzako irispiderik one- nak hiri honetan aurkitu ditugu (emaitza 'oso ona' lortu du atal horretan).
- Ikusmen-arazoak dituztenek arazo ugari eduki dituzte guk aztertu ditugun hiru eraikinetan, eta horrexegatik gelditu da azterketa gainditu gabe atal horretan ('hala- holako' emaitza atera du). Gainera, udaletxerako bidean egokitu zaizkigun semaforoek ez dute ematen soinu bi- dezko seinalerik, eta ospitaleko igogailuaren botoiak ez dira egon braillez idatziak edo erliebean jarriak.



BILBO: 'onargarria'

- + Iripideak ez dira bereziki onak, baina aurkitu dugu gauza on bat edo beste. Udaletxerako bidean, adibidez, gurutzatu beharreko leku guztietan egon da semaforoa, ospitaleko komun guztiak egon dira egokituak arazo motorrak dituztenentzat, eta tren-geltokiaren barre- nean ez dugu ikusi oztopo bat bera ere.
- Entzumen-ezintasunak dituztenentzako irispideak ('hala-holako' emaitza): tren-geltokian ez dute eduki zeinuen hizkuntza ulertuko duen interpreterik; ospitaleko itxarote-gelan ez dugu ikusi ikusmen-sei- nalerik, eta udaletxeko komunetan ere ez da egon ikusmen-seinalerik.



CADIZ: 'onargarria'

- + Itsuentzat egokitzeko neurri 'onak': ospitaleko sarrera kalearen maila berean, udaletxerako bidean dagoen zo- ruak ez du eduki arriskurik eta tren-geltokira sartzeko atea automatikoa da.
- Gurpil-aulkian doazenentzako edo entzumen-arazoak dituztenentzako irispideetan antzemandako gabeziak (emaitza 'onargarria'): harrera-mahaiak garaiegia ospitaleetan, udaletxera sartzeko atea eskuz irekitzekoa, eta zeinu- hizkuntza ulertzen duen interpreterik ez da egon tren-geltokian.



DONOSTIA: 'hala-holakoa'

- + Ezintasun motorra dutenentzako irispideak (emaitza 'ona'): hiru eraikin publikoen harrera-mahaiak altuera egokian egon dira, eta eraikinen banaketa egokiari esker, arazorik gabe mugitu liteke.
- Itsuentzako eta gorrentzako irispideak (emaitza 'hala- holakoa'): braillez idatzitako kartelak falta izan dira, batez ere udaletxean, txanda hartzeko makinetan, eta tren-geltokian ere bai, txartela erostekoetan.



GASTEIZ: 'onargarria'

- + Aztertu ditugun eraikinak ongi egokituak daude ezin- tasun motorra dutenentzat eta ikusmen-ezintasuna daukatenentzat. Bi ataletan ere, emaitza 'ona' atera du, batez beste: tren-geltokian eta udaletxean, kalea- ren maila berean dago sarrera, atea automatikoa da hiru eraikinetan, eta tren-geltokian izan ezik, ez dago oztoporik barreneko aldean.
- Entzumen-ezintasuna dutenentzako irispideak ('hala- holako' emaitza): hiru eraikinetako batean ere ez dute eskaini interprete-zerbitzurik zeinuen hizkuntzarentzat, eta, beraz, komunikazio-arazoak sortzen dira.



GRANADA: 'onargarria'

- + Emaitza 'onaren' eta 'hala-holakoaren' artean ibili da: ezindu fisikoentzako neurrietan, 'ona', eta entzu- men-ezintasunak dituztenentzakoetan 'hala-holako'. Onerako nabarmentzekoak ezindu fisikoei aparkale- kuak gorde edo bereizten zaizkiela ospitale inguruan, eta tren-geltokiko harrera-mahaiak altuera egokian daudela.
- Tren-geltokian ez dute eduki interpreterik zeinuen hizkuntzarentzat, eta udaletxean, ikusteko moduko larrialdi-seinaleak falta izan dira gorrentzat.



IRUÑEA: 'onargarria'

- + Ezintasun motorra dutenentzako irispideak (emaitza 'ona'): hiru eraikinek banaketa egokia eduki dute, gur- pil aulkiarekin arazorik gabe mugitzeko modukoa; az- tertu ditugun komun guztien ateak aski zabalak izan dira gurpil-aulkientzat, eta euste-barra eduki dute ko- munaren ondoan.
- Entzumen-ezintasuna dutenentzako irispideak ('hala- holako' emaitza): tren-geltokian soilik eduki dute in- terprete zerbitzua zeinuen hizkuntzarentzat (nahiz eta ez eskaini unean bertan), eta ospitaleko itxarote- gelan ez da egon ikusmen-seinalerik, kontsultara sar- zeko txanda iritsi dela adierazten duenik.



KORDOBA: 'ona'

- + Ezindu fisikoentzako, itsuentzako eta gorrentzako irispideak (emaitza 'ona'): tren-geltokian interprete- zerbitzua eskaintzen du zeinuen hizkuntzarentzat, bideo-deiaren bidez; udaletxeko sarreran, arrapala ez-mekanikoak jarri dituzte; eta ospitaleko komunak ikurrak braille hizkuntza edo erliebean daude.
- Udaletxeko komunetan ez dago ikusmen-seinale- rik, barruan inor den edo ez jakiteko; ospitaleko zoru- an ez da egon gida edo lerro bide-erakusgarri- rik (itsuen lagungarri izaten dira); eta oztopoak ikusi ditugu gurpil-aulkian joan behar duenentzat (hiri-altzariak).



MADRIL: 'onargarria'

- + Gurpil-aulkian doazenentzako irispideak ('onak'): tren-geltokira iristeko bide guztiak zoru ez-labainko- rra dauka, udaletxe inguruan aparkalekuak gordet- zen dizkiete ezinduei, eta ospitaleko komun guztiak egokituak daude.
- Entzumen-arazoak dituztenentzako irispideetan ant- zemandako gabeziak (emaitza 'hala-holakoa'): tren- geltokian ez dago ikusteko moduko larrialdi-seinale- rik eta zeinuen hizkuntza dakienik, ezta udaletxean eta ospitaleko kanpo-kontsultetan ere.



MALAGA: 'ona'

- + Entzumen-arazoak dituzten pertsonentzako irispiderik onenak daukate (emaitza 'oso ona'): zeinuen hizkunt- za interpretatzeko zerbitzua eskaintzen dute, adibi- dez, hiru eraikin publikoetan.
- Ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzako irispideetan antzemandako gabeziak (emaitza 'onargarria'): udale- txearen inguru hurbila ez dago aski egokitu itsuent- zat, tren-geltokiaren barreneko aldea ez da oztoporik gabea eta ospitaleko sarrera ez dago kalearen maila berean.



MURTZIA: 'onargarria'

- + Ezintasun motorra duten pertsonentzako irispideak (emaitza 'ona'): ezindu fisikoei aparkalekuak bereiz- ten edo gordetzen dizkiete hiru eraikinen inguru- tan, sarrerako ateak automatikoak dira eta komunak ongi seinalezatuak eta egokituak daude (udaletxean salbu).
- Ikusmen- eta entzumen-ezintasunak dituztenentzako irispideak (emaitza 'onargarria'): gida edo lerro bide- erakusgarriak falta izan dira hiru eraikinetan, eta in- terprete-zerbitzua ere bai zeinuen hizkuntzarentzat.



OVIEDO: 'onargarria'

- + Tren-geltokian zeinuen hizkuntza interpretatzeko zer- bitzua eskaintzen dute unean bertan, bideo-dei bidez; udaletxeko eta ospitaleko sarreran irispide egokiak daude, eta hiru eraikinen barreneko aldea ere ongi egokitu da (oztoporik gabe).
- Gurpil-aulkian doazenean antzeman dituzten gabeziak: hiru eraikinetako harrera-mahaiak ez dira egon altue- ra egokian. Zentzumen-ezintasunak dituztenentzat, ez da egon gida bide-erakusgarriak, eta komunek ere ez dute eduki ikusteko moduko seinalerik, erabiltzai- leak jakin dezan komunetan inor baden edo ez.



SEVILLA: 'onargarria'

- + Ezindu fisikoentzako irispideak 'onak': hiru eraikine- tan aparkalekuak bereizita edo gordeta eduki dituzte gurpil-aulkian doazenean, sarbideak ere egokituak egon dira eta eraikinen banaketa ere egokia izan da, arazo- rik gabe mugitzeko modukoa (udaletxeko zerbait to- kitan izan ezik).
- Ikusmen-ezintasuna dutenentzako irispideak ('hala- ho- lakoa'): hiru eraikinetako batean ere ez ditugu ikusi gida bide-erakusgarriak; pertsona itsuak errazago ibil daitezke; braillez idatzitako informazio gutxi egon da (komunetan, adibidez, ikurrak ez dira egon hizkuntza horretara itzuliak).



VALENTZIA: 'onargarria'

- + Aztertu ditugun hiru eraikinak ongi egokituta egon dira ezintasun motorra duten pertsonentzat (emaitza 'ona' izan da, batez beste): hiru sarbideek eduki dituz- te arrapala ez-mekanikoak, ateak automatikoak dira ospitalean eta udaletxean, eta tren-geltokian, altuera egokian egon da txartel-makina.
- Entzumen-ezintasuna dutenentzako irispideak. Ko- munak emakumeentzat edo gizonentzat diren adie- razteko ikurrak ez daude braillez jarrita. Gaine- ra, eraikinen barrenean ez da egon gida edo lerro bide-erakusgarriak.



VALLADOLID: 'ona'

- + Entzumen-ezintasuna eta arazo motorrak dituztenen- tzako irispideak (emaitza 'ona'): udaletxean eta tren- geltokian, interprete profesionala daukate zeinuen hizkuntzarentzat, eta hiru eraikinen harrera-mahaiak altuera egokian egon dira gurpil-aulkian doanentzat.
- Ikusmen-ezintasuna dutenentzako irispideak. Ko- munak emakumeentzat edo gizonentzat diren adie- razteko ikurrak ez daude braillez jarrita. Gaine- ra, eraikinen barrenean ez da egon gida edo lerro bide-erakusgarriak.



ZARAGOZA: 'onargarria'

- + Ezintasun motorra dutenentzako irispideak (emaitza 'ona'): hiru eraikinen sarbideak egokituta egon dira, eta harrera-mahaiak altuera egokian.
- Zentzumen-ezintasuna dutenentzako irispideak (emaitza 'onargarria'): ez dago gida bide-erakusgar- ririk zoru- an, kolorez eta testuraz nabarmendutako- rik, eta soinu bidezko seinalerik ere ez dago infor- mazioa emateko edo kokapena zehazteko (itsuentzat lagungarria izaten da hori, eraikin barrenean hobe- ki moldatzeko); interpreterik ere ez dute eduki hiru eraikinetan.